




OSIERRA

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ZILARREZKO EZTEIAK

Artxibokoa



*UEUko zuzendari ohiak,
"dinosauru" nagusiak.
Ezkerretik hasita: Martin Orbe,
Kepa Altonaga, Inaki Irazabalbeitia
eta Baleren Bakaikoa.*

UEU: 25 urte bidean

Alfontso Mujika

Lehen aldia: Donibane Lohizune

Jar gaitezen 1970eko hamarkadan. Hegoaldean euskararen aldeko mugimendua —ikastolen mundua, alfabetatze-euskalduntzea, etab.— pil-pilean dago eta dikta-duraren aurkako borroka politikoa- rekin batera doa. Francoren erregi- menak bere azken urteak bizi ditu eta etengabe goraka doan euskal kulturaren bultzadari aurre ezin eginik dabil. Iparraldean, berriz, giroa lasaia da eta euskararen aldeko mugimendua, anitzez makalagoa izanik ere, bere bidea egiten ari da. 1970ean hasita, Baionan Kultur Asteak egiten ziren urtero Baionako Erakustokian (Euskal Museoa), Euskaldunen Biltzarra, Ikas eta Fededunak elkarteek antolatuz. Antolatzaileen helburua euskal kultura lan- tzea zen, erlijio-gaiak ere lantzen bazituzten ere; euskaldunak elka- rren berri izatea eta lan-taldeak sortzea ziren beste helburuak. Piarres Xarriton eta Jean Haritxelhar izan ziren Kultur Aste horien antolatzaile nagusietakoak.

Urte batzuk lehenago, katalanek, Rosellò aldean, Universitat D'Estiu izeneko ekimena abiarazi zuten eta Karlos Santamaria euskal pentsalari eta euskaltzale handiak Baionako Kultur Asteari jite berria eman eta Udako Unibertsitate bilakaztea proposatu zuen, katalanen ereduan oinarriturik. Ideia gogoz hartu zuten Kultur Astearen antolatzaileek eta lanari lotu zitzaizkion. Ikas taldeko Manex Goienetxek bere gain hartu zuen antolakuntza eta egitarauaren ardura. Jean Haritxelharrek, Bordeleko Uni- bertsitatearen bidez, Frantziako

Hezkuntza Ministerioaren baime- na lortu zuen eta, Ipar Euskal Herriko kontseilari eta alkateek oniritzirik eta Euskaltzaindiak babesturik, Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeoan, 1973ko abuztuaren 28tik irailaren 8ra egin zuen Udako Euskal Unibertsita- teak bere estreinako ihardunaldia.

Ihardunaldia zortzi arlotan antola- tu zen. Esan beharra dago ikasta- roak ez eta hitzaldiak izan zirela, euskal kulturako pertsona ezagu- nek emanda. Guztira laurogei bat

Ramon Etxebarria, Ibon Sarasola, Gurutz Ansola, Klaudio Harluxet, Joseba Intxausti, etab.

Bigarren ekitaldia ere toki berean egin zen 1974an eta 110 bat partai- de izan zituen. Aurreko urtekoaren bidetik joan zen, hau da, hitzaldi- -sorta bat izan zen, baina berrikun- tza batekin: eskola magistralen eredia aldatu ez bazen ere, bi lan- taldek parte hartu zuten: Leioako Euskal Kultur Mintegiak eta Elhu- yar Kultur Elkarteak; biak UEUren dinamizatzaile izan ziren hasiera- tik bertatik.



Arxibokoa

Manex Goienetxe izan zen UEUko lehen zuzendaria; Iparraldeko urteetan (1973-76) berak izan zuen antolakuntza eta egitarauaren ardura.

partaide, ikasle-irakasleak, izan ziren, Iparraldekoak gehienak. Bere txikian, lehenengo ekitaldi hura euskal kulturaren bilgunea izan zen; han izan ziren, besteak beste, Koldo Mitxelena, Alfonso Irigoien, Jose Migel Barandiaran, Karlos Santamaria, Juan San Martin, Luis Villasante, Jean Haritxelhar, Patxi Altuna, Andu Lertxundi, Joxe Azurmendi, Piarres Xarriton, Txillardegi, Jean Luis Davant, Jose Maria Satrustegi, Jose


Bigarren aldia: Uztaritzeko urteak

Hurrengo bi urteetan, 1975ean eta 1976an, Uztaritzeko Landagoien etxea izan zen UEUren egoitza. Talde eragile bat eratu zen, Euskal Kultur Mintegia, Elhuyar, Jakin eta Euskaltzaindiaren ordezkariak osatu, ikastaroak antolatu eta dirulaguntza biltzeaz arduratzeko. Hegoaldeko ikasle anitz joan ziren. Orduan egin zuen UEUk bere lehen manifestua (1975): benetako

Sei silaba edo hamabost letra

Artxibokoa

Inaki Irazabalbeitia
UEUko zuzendari ohia



Hogeita bost urte, sei silaba edo hamabost letra. Alabaina, matematikak, kontatzeko sistemak egia esan, tranpa txiki bat jarri digu. Urteak egitan hogeita lau dira eta edizioak hogeita bost. Donibane-Lohizune 73, Euskal Herria 97. Inporta al dio, hala ere?

Uztaritzen 76an igo nintzen ni UEUren gurdian eta, harrezkero ohizko pasaiaria naiz. Joandako garaiei lilurak itsutzen gaitu sarritan. Ez da hau kasua, baina kutuntasun bereziko oroitzapenak ditut uda mugitu hartaz. Franco hil berria zen; ez ahaztu. Talka-terapiaren moduko izan zen Uztaritzeko esperientzia. Euskalgintzaren beste ikuspegi eta bizipenekin jarri ninduen harremanetan. Ikastolan ikasia nintzen, euskara batuaren eztabaidak gertutik bizitu nituen eta mugidatik ez nintzen urrun. Uztaritze, dena den, beste gauza bat zen.

Gogoan dut Manex Goihenetxe, orduko zuzendaria, ezagutu nuen eguna. Hegoaldetik abiatu ginen bina autotan lau lagun, ni baten gidari. UEUrentzat Hegoaldean bildutako milaka pezeta batzuk generamatzen ezkutaturik. A zer dararizoa Hendaiako muga! Manexi dirua eman arte ez nintzen lasaitu. Sekulako balentria iruditu zitzaidan, nire hemezortzitan, dibisa-trafikoa txiki hura. UEUrekiko lehen hartu-eman izan zen.

Uztaritzeko giroak inpresionatu ninduen: irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio ireki eta maila berekoa. Tartean izen ospetsuak ibiliaz ere, ez ziren tratu eta harremanetan azken ikasleaz nabarmetzen. Alde ederra unibertsitate ofizialarekiko! Eztabaida irekia zegoen, ideia trukea eta guztien iritzia entzuten zen; esate baterako, ni bezalako ezjakin lotsagabea zientziaren euskarazko terminologiaren iritzia ematen ausartzen zen eta entzun egiten zidaten! Giroak horretara laguntzen zuten. Oso gogoan ditut "Bilguneko" eskolak, Txillardegik tximinoen zeinuhizkuntzaz emandakoa bereziki (pertsoneia mitikoa hintzen enetako, Jose Luis).

Luis Mari Bandresen gidaritzapean ezagutu nituen Lapurdi eta Nafarroa Behereko herri eta herrixka zoragarri asko gure gaueroko osteratxoetan. Gerora euskalgintzan bidelagun izan nituen pertsona asko ezagutu nituen han (gogoratzen al zara Sagrario nire galtzen urratuaz?) Eta oraindik lotsa sentitzen dut, Natxo de Feliperi "españolista" oihupean kantatzen eragotzi zioten eguna gogoratzean. (Barkatu al diguzu Natxo?)

Tripako zorria asetzeko olio-ozpinetan bustitako ogia; Joserra Etxebarria eta Patxi Goenagaren bertso-saioak Landagoien aurreko belardian; kanpinean etorritako jendea; Iparraldeko euskara ezitia... Oroimenaren mahats-ale kutunak. Bestelakoa zen garaia eta bestelakoa gure izpiritua.

UEUko maila guztiak pasa ditut harrezkero eta, azkenik, Martin Orbe esaten duen legez, inoiz kenduko ez didaten bat erdietsi dut: "ohia". Ohore handia, ez pentsa. ●

euskal unibertsitatearen beharra aldarrikatu zuen, garai hartan Euskal Herrian zegoen unibertsitate-puzzleak (Hegoaldean Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea, pribatuak biak, gehi publikoak: Bilboko Unibertsitatea, Valladolideko Unibertsitatea Araba eta Gipuzkoan eta Zaragozako Unibertsitatea Nafarroan; Iparraldean, Bordele eta Pabeko Unibertsitateak) Euskal Herriaren beharrak eta nahiak ez

zituela betetzen iritzia. Eta etorkizuneko Euskal Unibertsitateak beharko litzuzkeen hiru ezaugarri nagusiak zehaztu ere egin zituen UEUk: euskalduna (euskaraz arituko dena) izatea, Euskal Herri osoa hartzea eta herritarra (guztiei irekia) izatea.

1976ko ihardunaldian UEUren alde agertu ziren Euskal Herriko hainbat pertsona eta talde, hala nola Julio Caro Baroja, Jose Migel Barandiaran, Xabier Arzallus, Eus-

kalerriaren Adiskideen Elkarte, Hego Euskal Herriko Arkitektoen Kolegioa, etab. Ikasle gehiago izan ziren eta espezializazioerantzko lehen urratsa egin zen: arratsaldeko mintegietan zientziak eta letrak bereizi egin ziren. Ordu arte antolatzaile-lanetan buru-belarri ibilia zen Manex Goihenetxek, lanez gainezka, dimisioa aurkeztu zuen; Manexen mailako arduraduna aurkitzea ez zen samurra eta, kezka horrekin batera, UEU Iparraldetik Hegoaldera eramatearen inguruko eztabaida zabaldu zen: partaide gehienak Hegoaldekoak izatea, euskal kulturaren pisu nagusia eta euskaldun gehienak Hegoaldean izatea eta Franco hil ondorengo giro soziopolitikoa ziren Hegoaldera eramatearen abantailak, baina, bestetik, Iparraldearentzat UEU galtzea kaltegarria izango zela ikusten zen. Azkenik, aldeko eta kontrako argudioak eztabaidaturik, UEU Hegoaldera eramatea erabaki zen azken eguneko bileran. Horrekin batera, Martin Orbe UEUko idazkari berria hautatu zen.

Hirugarren aldia: UEU Iruñean

Martin Orbe buru-bihotzez ekin zion UEUren egitura Hegoaldean sortu eta sendotzeari, Talde Laguntzailea ondoan zuela. Ekitaldirako baimena lortzea nekeza izan zen (Martin Orbe eta garai hartan Espainiako barne-ministroa zen Rodolfo Martín Villaren arteko eskutitzak lekuko), baina, azkenik, ikastaroak hasteko hilabete baino gutxiago falta zela, Espainiako Ministerio de Educación y Ciencia-tik baimena iritsi zen. Iruñean, Euskal Herriaren hiriburu historikoan, ekin zion UEUk gaur arte iristen den hirugarren aldiari. Hegoaldeko lehen ihardunaldia (1977) oso garrantzitsua izan zen: batetik, lehen aldiz, ikastaldi berezituak antolatu ziren, sailez sailekoak. Bestetik, lehen liburuak argitaratu zituen UEUk, unibertsitate-mailan inoiz argitaratutako euskarazko

aurrenekoak hain zuzen. Madrilen zeuden euskal parlamentarien ize-
nean atxikimendu-telegrama bida-
li zuen Manuel de Irujok; UEU edo,
hobeto esan, UEUK adierazten
zuen euskal unibertsitatearen
nahia euskal gizartean hedatzen
eta gorpuzten ari zen seinale. Ongi
ulertu behar da hori, UEUK euskal
unibertsitatearen ideia zaharrari
egin dion ekarri nagusia euskal-
duntasunaren beharra izan da,
UEUK plazaratu eta defendatu
baitu —praktika bidez plazaratu,
gainera— lehen aldiz euskarazko
unibertsitatearen beharra.

1978an sendotu egin zen aurreko
urtean hasitako bidea: partaideak
gehitu, espezialitateak indartu eta
liburugintzak aurrera egin zuten.
Geroztik, UEUK bide horretan
segitu du, helduarora iritsi da eta
aldaketak izan ditu —partaideak,
sailak, arduradunak aldatu dira—
baina lan-ildo nagusia orduko
bera da. UEUren oinarria euskara-
ren militanteen lana izan zen
hasieran eta hala da gaur egun
ere. Idazkaritza profesionala du,
baina gainerako arduradunek
—zuzendariak, Talde Eragileko
kideek, sailburuek— ez dute ino-
lako soldatarik jasotzen eta UEUK
argitaratzen dituen liburuen egi-
leek ere ez dute egile-eskubi-
derik kobratzen. Erakunde publi-
koen dirulaguntza jasotzen du
UEUK, eta behar-beharrezkoa du,
baina lan militante hori gabe
UEUrik ez zen izango.

Iparaldean ere UEU

Hegoaldean finkatuz geroztik,
Iparaldeko partaide gehienak
galdu zituen UEUK. Horregatik,
1985ean Iparaldeko kultur premiei
egokitutako ikastaroak ematen hasi
zen Baionan eta geroztik bide
bikoitz horri —Iruñea eta Baiona—
eutsi dio. Baionako ikastaroen
antolakuntza-eredua, iraupena eta
bolumena Iruñekoaren aldean aski
desberdina dira. Hala ere, azken bi
urteotan hainbat aldaketa izan dira

ARGIA



UEUren bi aurpegiak:
ikasgelan serio,
ikasgelatik at alai.



ARGIA

ARGIA



Edurne Alegria
(ezkerrean) izan da
Iparaldeko ikastaroen
arduraduna urte
askotan.

eta Hegoaldeko ikasleak ere
Baionara joaten hasi dira, Baionako
eskaintza Hegoaldeko jendearen-
tzat ere interesgarria baita.

Urte osoko iharduera

UEUren lana ez da udan amaitzen;
ikastaro nagusiez gainera, dibul-
gazio-mailako hitzaldi-zikloak
antolatzen ditu urtean zehar
1985az geroztik: Donostian, Bilbon,
Gasteizen, Iruñean, ... Eta, gainera,
liburugintza urte osoko lanaren
emaitza da (ia 200 liburu argitara-
tuak 25 urteotan). Ez hori bakarrik,
sailek ikastaroak prestatzeko lan-
bilerak izaten dituzte urtean
zehar eta aurreko guztiari *Uztaro*
giza eta gizarte-zientzietako lauhi-


labetekaria gehitu behar zaio
1990az geroztik.

Horrek guztiak UEUren gaurko
errealitatera ekarri gaitu. Hogeita
bost urte bete dituen honetan
atzera so labur bat egin dugu he-
men. Baina UEU zer gehiago da?
Ikastaro, liburu eta gainerakoez
gainera, Euskal Herri osoko uni-
bertsitarien biltokia ere bada, eus-
kal unibertsitatearen nahiaren
espazio sinbolikoa (euskal uniber-
tsitate “birtuala” modako hitza era-
biliz), garrantzitsua oso. Helburu
horri, zuzi horri, tinko eusten dio
UEUK, inolako eskusibismo eta
protagonismo-nahirik gabe, apal
baina sendo, eta beti lanean.
Euskal Unibertsitatera iristeko
beste hogeita bost urte beharko
ez diren esperantzan. ♦




UEUren bilakaera zenbakitan


Iruñeko ikastaroak. Partaideak urtez urte (lehen lau urtean Iparraldean izan ziren, ez Iruñean).



Iruñeko ikastaroak. Partaideak (ehunekotan) urtez urte adin-tarteka.



Iruñeko ikastaroak. Partaideen jatorria (ehunekotan) urtez urte.




Urtez urteko bilakaeran bi datu nabarmen:

- 1) UEUk gora egin du, ia etengabe, partaide-kopuruari dagokionean.
- 2) UEU "gaztea" da, partaideen erdiak baino gehiago 30 urtetik beherakoak dira.

Partaideen jatorriari begira, oro har euskaldunen banaketa herrialdeka islatu egiten da Iruñeko ikastaroetan. Aipagarria da arabar eta nafarren portzentaia, pixkanaka baina, goraka doala, bizkaitarren kaltetan.

Baionako ikastaroak. Partaideak urtez urte





Egunkaria

UEUren 25. urteurrenean

Pedro Miguel Etxenike



Uela ia 25 urte, Einsteinen ideiak aztertuz eta eskainiz UEUren lehen urrats haietan esku hartu zuen ni bezalako batentzat benetan pozgarria da, hain xume baina aldi berean

hain idartu hasi ziren saio horiek 25. udara, hurrenez hurren, iritsi direla ikustea. Pozgarria mende-laurden honetan zehar euskalgintzaren baitan eman dituen era guztietako fruitu garrantzitsuengatik (aski da urtez urte UEUren egitaraua aztertzea pausoka-pausoka hor gertatu den gai eta partaideen ugaritzeaz ohartu eta miresteko).


Hasiera hartan, eta geroago ere bai, izan da iritzi-desberdintasunik UEUren kokaguneaz eta betekizunaz. Iritziak iritzi, 25 urte horietan zehar UPV/EHUren sorrera ikusi dugu, bere 60.000 kiderekin munduko unibertsitate jendetsuenetakoa izatera iritsi denarena (ez da ahaztu behar munduko prestigio handieneko unibertsitateek, Princeton edo Cambridge bezalakoek, 5.000 eta 10.000 inguru ikasle-irakasle dituztela). Gure unibertsitate publiko gazte honek, bere argitzal guztiekin, urte gutxitan bide luzea egin du eta askotan uste baino ikerketa- eta koalfikazio-maila hobek lortzen dihardu nazioarte-mailan.

Bestalde, euskarazko irakaskuntza ere aurrera doa fakultateetan eta gero eta gehiago dira puntako ikerketa eta euskalgintza batzea lortzen ari direnak, nahiz eta nazioarteko foroetan ingelesaz baliatzea ezinbestekoa den komunitate zientifikoa harremanak finkatzeko.


Nik neuk ez dut inoiz UEU Euskal Herriko Unibertsitatearen alternatiba bezala ikusi, baizik eta euskalgintza eta euskal kulturaren bilgune edo topagune gisa, lehen, orain eta gero; baina horrek ez du esan nahi betekizun hori apalagoa edo bigarren mailakoa denik. Azken hilabete hauetan behin eta berriz komunikabideetan agertu den Euskararen Unibertsoak bultzatzen dituen helburu eta ideien ildotik, Unibertsitatean eta gizarteetan sail eta alor desberdinetan burutzen diren ahalegin eta saioak egituratu, koordinatu eta artikulatzeko tresna ezinbestekoa izan da UEU eta bizi dugun gizarte- eta politika-egoera gatazkatsu eta larrian UEUren emaitzak balio estimagaitza du kultur agente eta gizarteko sektore desberdinen artean kohesioa eta lankidetzaz bideratzeko.

Lan bikaina jakintza- eta gizarte-mailan UEUk orain arte burutu duena eta esperantza handikoa aurrerantzean ere Euskal Herriko gizarteak dituen erronka handiei egoki erantzun ahal izateko. Lortuko ahal dugu beste 25 urte bete baino lehen Euskal Herria euskaldun, baketu eta integratua, munduan zehar adiskidetasunezko eskuak luzatuz eta "fruitua zabalduz" ibiliko dena.


Baionako ikastaroak.
Partaideak jatorriaren arabera urtez urte.



Urtez urte argitaratutako liburu-kopuruak
(Uztaro aldizkaria kenduta)



Argitaratutako liburuak sailka
(Uztaro aldizkaria kenduta)



E

torkizuneko Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugunok proiektu oso zabal baten

partaide eta burutzailerik garelakoan nago: herri- edo nazio-proiektu baten partaide garelako esango nuke. Eta analogia egitea zilegi bazait, antzinako katedralen proiektuaren irudia hartuko dut, horrela nik baino lehenago sarri hartu izan den alegoria bat pentsaketara ekartzeko. Dakigunez, duela zenbait mende eginiko katedralak harrizkoak dira eta horri esker diraute oraindik ere zutik. Zer gutxiago egin dezakegu geure harrizko herri honetan, etorkizunerako oinarriak finkatzeko harria oinarri hartzea baino! Sendo eta zutik irauin nahi badugu, behintzat. Horregatik ez dut lekuz kanpokotzat katedralaren iruditik abiatzea, gure proiektua sakratua izan ez arren ere, asmoaren ederrak bizi osoaren ahalegina merezi duelakoan.

Seguruen behin baino gehiagotan entzungen zenuen harrobiko hiru harginen pasadizo famatu hura. Hiruek ziharduten harria lantzen, zeinek berea, hirurak berdinak, paralelipedo-forma xumekoak, harri errektangeluarrak, alegia; baina harginen jarreraren artean bazen alderik, galdezka joan zitzaienari erantzutean argiro ikus daitekeenez. Hain justu, zertan ziharduten galdetzean, lehenak honelaxe erantzun omen zuen, gutxi gora-behera: *“eguneroko ogia irabazten ari naiz”*. Bigarrenak *“horma baterako harria lantzen ari naiz”* edo horrelako zerbaite esan zuen, oso hargin fina izanik ondo menperatzen baitzuen teknika. Hirugarrenak, ordea, zur eta lur utzi zuten emaniko erantzunaz: *“katedrala eraikitzen ari naiz”*. Badakit, jakin, askoz ere jarrera gehiago egon daitezkeela eta agian aipaturiko hauek topikotzat har daitezkeela, baina horiez baliatuko naiz UEUren historia ez hain laburrean bertako harginek —barka, partaideek— izaniko jarrera adierazteko, irakurleak UEU zer den aldeaz aurrerik ere badakielakoan. Dena den, zalantzarik egon ez dadin, gogora ekarriko dut Udako Euskal Unibertsitateaz ari naizela, duela hogeita bost urte euskara hutsez sortu eta bizi den unibertsitate

UEUko harrobia

Jose Ramon Etxebarria

estraofizialaz; Baionan jaio bazen ere, handik Iruñera pasatu eta gaur egun bere ekitaldiak euskal lurralde guztietara hedaturik duen horretaz, sasi —edo muga administratibo-estatal— guztien gainetik eta hodei —edo itomen ekonomikorako ahalegin— guztien azpitik bada ere. Euskal herrien lurraldekotasuna osotasunean eta praktikan onartzen duen unibertsitate baka-rraz ari naiz.

Proiektu nazional baten —demangun katedrala dela— parte da UEU, proiektu horrek bestelako arkitekto eta lan-zuzendari asko ere behar dituelarik, arlo guztiak ondo koordinaturik joan daitezzen nahi badugu, bederen. Eta proiektua martxan da, irakaskuntzaren arloa eraikuntza horretarako harrobi modukoa delarik, ez baitago herri hau eraikitzerik herritarren prestakuntza egokirik gabe. Proiektua hizkuntzaren batean idatzi behar denez, dioadan asko garelako uste dugunok benetako katedral euskaldunik nahi badugu euskaraz baino ezin idatz daitekeela. Hortaz, euskal harrobia behar genuela konturaturik, lehenagoko beste harrobien bidetik abiatuta —ikastolek markatu baitzuten iparra—, 1973ra iritsi aurreko urtetan harrobi berriaren premia genuela ikusi zuten aitzindari batzuek, hemen banan-banan aipatuko ez ditudanak, baina guztien memoria kolektiboan inoz ezabatuko ez direnak. Eta haiek eginiko deiari erantzunez, hargin asko hurbildu ginen hurrengo urteetan Donibane Lohizunera, Uztartzera eta Iruñera, besteak beste, geure harrizko hizkuntza unibertsitate euskaldunerako lantzeko asmoz. Urteotan, ezinbestez, mota desberdineko harginak hurbildu dira UEUko ekitaldietara. Ateak guztientzako irekita egon baitira betidanik, baldintza bakarra ekitaldietan euskara hutsez parte hartzea izanik. Proiektu hau guztiz zuzendua bada, bestela


ezinezkoa izango baita herri honetan harrizko katedrala eraikitzea. Dena den, egia esanda urte horietan harriaz bestelako materiala ere erabili nahi izan dutenak ere hurbildu dira harrobira —zientifikotasunaren mailaren izenean, hizkuntza hain garrantzizkoa ez zela ziotenak eta garrantzizkoena gaia bera zela ziotenak, adibidez— baina guk geureari eutsi diogu, izatekotan katedrala harrizkoa behar zuela pentsatuz.

Hasieran kontaturiko harrobiko ipuinean bezalaxe, gutxienez hiru motako harginak aurkitu izan ditut nik. Izenik emango ez dudanez, ez dut uste inork haserretu beharrik duenik, zein taldetan bere burua sartu, hori berak juzka dezakeelako; nik ideia baino ez diot emango, nor bere buruari buruzko epaia eman dezakeelakoan.

UEU ogia lortzeko modutzat hartu dutenak izan dira batetik, hainbat eta hainbat. Zuhurrak edo berekiokak —hori nork jakin?—, euskaraz jantzita egonik lanpostua errazago lortzeko aukera ikusi dute batzuek UEUra joanda; eta horretara joan dira. Bestalde, hain gordin jokatu ez arren eta hasierako asmoa hori izan ez arren, bertan euskara landu eta horri esker lanbide hoberik lortu ondoren UEU erabat alboratu dutenak ere ez dira gutxi izan. Dena den, jakin badakigu, harrobira ogi bila doazenak sekula ez direla faltako eta, agian, gehiengo osatuko dutela. Eta horiek ere lan egiten dute harrobian.

Hargin finik ere izan da UEUn, lan oso zehatza egin duena eta egunero egiten diharduena, teknikari edo zientzilari ezin hobea dena, euskara bikain lantzen duena, kalitatearen gorakadan zerikusit duena, baina beste helbururik ez duena edo, nahiago baduzu, harrietatik harantzago ikusten ez duena. Horietako batzuek UEU bere betebeharrak buruturik duela uste dute eta jadanik erreleboa

Egunkaria



emateko bidean hasi behar dela; zehatzago esateko, jadanik erakunde ofizialak antolatuturik egonik, euskalgintzaren ardura berauen eskuetan utzi behar dela uste dute eta ofizialtasunean integraturik datorrela etorkizuna. Uste izatekoa denez, harrobi guztietan aurki daitezke teknikari onak, paralelipedoaren forma doitasun handiz zizelduko dutenak, hormak zuzen egiteko bidea eskainiko dutenak. Zalantzarik ez dut hargin horiek laguntza handia eman dezaketela katedralaren eraikuntza zuzen eta egoki abia dadin, harria baita funtsa; baina katedralaren diseinuan ez dute parte hartuko, asmorik ere ez, eta, agian sekula ez dute katedralik egingo, aski baitute alde goirik gabeko horma zuzenarekin.

Gutxiago ikusi ditut harria lantzen duten bitartean katedrala buruan dutenak. Baina badira eta ez gutxi; aski ere izan daitezke, proiektuari eusten badiote. Zeren proiektu hau arnas luzeko baita, belaunaldi bakar batean burutu ezineko, gaur egun miresten ditugun katedralak izan ziren moduan. Belaunaldiz gaineko proiektua baita gurea, gerora bizi nahi duen herri zahar-berrituarena. Ametsak amets eta irudiak irudi, benetan uste dut UEUko lanik xumeenean ere harrizko Euskal Herria eraikitzen ari garela, baina horretarako prozesu luzean (agian amaigabea datekeena) harriak ongi lantzeaz gain —teknikari edo zientzilari onenak bezain fin lan eginez— ikastaldirik sinpleena ematen ari garenean, ideia berriak bideratzen saiatzen ari garenean, proiektu bereko kideen arteko giroa eta errespetua erretzen dihardugunean, sekula ez dugu ahantzi behar proiektuaren helburua; euskal nazioaren eraikuntza. Bestela ez baitago harrizko katedralik eraikitzerik. ●


UEUren egitura eta funtzionamendua

Mari Karmen Meñika

Lan militantean oinarrituta, 1995an burututako Kongresuaz geroztik, bazkideak eta hauek osatutako sailak dira UEUko zutabe nagusiak. Formalki Udako Euskal Unibertsitatearen izaera legala UEU Kultur Elkartea da eta horrela dago erregistraturik bai EAEan eta baita Nafarroan ere. Iparraldean, bertako legeei atxikiz, *association* bezala legezaturik dago. Dena den, Batzar Nagusia, UEUkide guztiek osotutakoa, UEUren erabaki-organo gorenena da. Urtean behin biltzen da eta bertan azaltzen dira aurreko ikastaldian egindakoak eta hurrengo urteko ekintza eta aurrekontuak onartzen dira. Bertan finkatzen dira UEUren ihardueraren norabideak. Sailak lan- edo jakintza-arloen inguruko talde gisa ulertzen dira. Beraiek dira UEUko ikastaroak antolatzen dituztenak eta baita liburugintza edo bestelako iharduerak bultzatzen dituztenak ere. Sailak koordinatzeko sortu zen bilgunea Sailburuen Biltzarra dugu. Sail bakoitzeko sailburuek (edo hauen ordezkariak)

osutzen dute, Zuzendaria eta Idazkaritzako bi ordezkariarekin batera. Bere eginkizun nagusia plangintza akademikoa burutzea da. Urtean hiru/lau bat aldiz biltzen da. Ikastaroen edo bestelako ihardueren prestaketarako hainbat lan burutu behar dira, lekuak bilatu, azpiegitura antolatu, baliabide ekonomikoak segurtatu, etab. baita ere etorkizunean pentsatzea. Horretaz guztiaz arduratzen dira Zuzendaria, Talde Eragilea eta Idazkaritza. Talde Eragilea da UEUren organo bizkortzaile nagusia. Bere eginkizunak UEUren martxaren egunerokotasunarekin erlazionatuak dira. Bere helburu nagusia Sailburuen Biltzarrak onartutako sailen plangintzak aurrera eramateko beharrezkoak diren ekintzak bultzatzea eta UEUren eguneroko bizitzari loturiko guztia gauzatzea da. Hilero biltzen da. Talde Eragilea Batzar Nagusiak aukeratutako 8 pertsonak, gutxienez, osatzen dute, gehi Zuzendaria eta Idazkaritzako langileen ordezkaria. Talde horretako partaideen artean

UEUko jakintza-multzo bakoitzeko ordezkari bat dago eta herrialdeko ordezkariak ahalik eta osoena bilatzen da. UEUren beste langunea idazkaritza da. Idazkaritzak UEUren administrazio- eta zerbitzu-lanak egiten ditu. Bere zeregin nagusia, hortaz, UEUri beharrezkoak diren gestioa, laguntza eta aholkua emateko iharduerak eskaintzea da, UEUren funtzioak ahalik eta ongien gerta daitezen. UEUren egitura aipatzen ari garelarik, puntu oso garrantzitsu bat ezin alde batera utzi: UEUren oinarrian pertsona askoren lan militantea dago eta horrek egiten du posible, hein handi batean. UEUn hiru pertsonak soilik kobratzen dute soldata, bulegoan ari direnek, alegia. Gainontzeko arduradunek ez dute beren lanaren truke sosik jasotzen, dietak izan ezik; gainera, liburu-egileek ere musu truk ematen dizkiote UEUri egile-eskubideak. Beste modurik ez baitago gurea bezalako erakunde batek hogeitabost urteetako bizitza edukitzeko. ♦



UEUren egitura

E

z da erraza ez, 1973ko euskal giroak bizi zuen egoera gaur egun azaltzea. Euskararekin zerikusia zuen guztia debekatuta ez zegoenean, mesprezatuta, baztertuta eta zapalduta zegoen, erakundeen aldetik, bereziki. Laguntzak edo subentzioak jasotea ametsetan ere ezin zitekeen pentsatu, partikularren baten ahalegin borondateatsua, baina, jakina, urria ez bazen behintzat Unibertsitateak bizi zuen egoerari dagokionez, Euskal Herrian ez zegoen unibertsitate publikorik; pribatuak bai, Nafarroakoa eta Deustukoa. Artean, eta gogoratzeko besterik ez bada, Gipuzkoan zeuden unibertsitate-ikastetxe publikoak (Peritu Eskola, Irakaskuntza Eskola eta Zuzenbidea, oker ez banago) Valladolideko Unibertsitatearen adarrak ziren, esate baterako. Eta antzera gainerako lurraldeetan ere. Gutariko gutxi batzuk, 60.eko hamarkadan unibertsitatean ikasle ginelarik, euskararen gaiari heldu genion eta lehenengo urratsak egiten hasi ginen. Horrela, Donostiako Injinerutza Eskolan lagun batzuk geure kabuz euskara teknikoak eta beste zenbait gai lantzen hasi ginen. Bide horretatik segituz, 1968an Euskal Kultur Taldea (EKT) antolatu genuen eta horren bidez euskarazko eskolak (euskara irakasteko, noski, ikasgeletan euskara erabiltzea amets hutsa baitzen), euskal kultura eta euskara teknikoak, besteak beste, lantzen hasi ginen. 1972. urtean Injinerutza Eskolan titulu berri batzuk eta karrerako azken urteetako ikasle-talde bat

UEU dela eta...

Luis Bandres Unanue

elkartu ginen, geroago *Elhuyar* izango zen taldearen lehen urratsak egiteko, hots, zientzia eta teknika euskaraz normaltasunez lantzeko. Horregatik, 1973ko uztailean Donibane Lohizunen, aurreko urtean Baionako euskal kulturaren astearen barruan egin ziren hitzaldien segida bezala, Udako Euskal Unibertsitatearen lehen ekitaldia antolatzeko asmotan zebiltzala jakin genuenean, inolako zalantzarik gabe gure taldeko batzuk bertan parte hartzea erabaki genuen. Horrela, 1973ko txanda hartan bertan bildu ginen. Egituraz eta programaz eskas ginen, noski, baina gogoz eta asmoz beterik. Gaur egungo egiturekin alderatuz, hura sailez osatutako zerbait antolatua baino, denok elkarrekin egindako mintegi-andana izan zen. Zenbat lagun elkartu ginen lehen txanda hartan? Ez dakit, baina oso gutxi izan ginela esan dezaket. Pixkanaka-pixkanaka hasi ginen UEUn eta arian-arian jendea gehituz joan zen. Donibaneko "Maurice Ravel" institutua berehala geratu zitzaigun txiki; beste nonbait habia aurkitu behar eta Iparraldeko lagunak, Manex Goihenetxe bereziki, arduratu ziren horretaz, Uztartitzeko egoitza aurkitu arte. Bertan izandako txandak ahaztezinak dira niretzat: adiskide-giroan egindako klaseak,

eztabaiden seriotasuna, atsedeen-orduetako alaitasuna... Urte horietan UEUK bere sailkako egitura hartu eta egokitu zuen. Beraz, Hegoaldean frankismoaren hankapean geunden bitartean, Iparraldean aurkitu zuen UEUK bere kokalekua. Alabaina, partaide gehienak lortzen zen diru apurra batik bat Hegoaldean eskuratzen genuenez, UEUKo partaideak gero eta gehiago zirenez eta Iparraldeko antolamendu-arduradunak gutxi zirenez, azkenik Hegoaldera pasatzea proposatu eta erabaki zen. Iruñeko Larraona egoitzara joan ginen. Geroagoko ibilbidea askoz ezagunagoa da eta ez noa hemen orain ezer esatera. Orain dela 25 urteko hasiera hartan jakinduriaren esparru guztietan euskararen gaitasuna eta doitasuna orain baino askoz maila apalagoan zeuden. Nire ustez, UEUK izan duen merezimendurik handiena hauxe da: euskara jakintzaren tresna izan dadin landu beharra gu guztiongan txertatzea eta bultzatzea, hain zuzen. Horrela, urtearen sasoi mugatu batean hartzen genuen arnasak gero urtean zehar gure ohizko lanean (kasu unibertsitatean), geure gaiak euskaraz lantzerantz bultzatzen gintuen. UEUtik pasatako batzuk gure gaiak euskaraz

ARGIA




ematen hasi ginen hortik oso gutxira (nire kasuan, fisika Donostiako Kimika Fakultatean 1976an). Pixkanaka, Euskal Herriko Unibertsitatean ereindako hazia bere uzta ematen hasi zen eta euskaraz irakatsitako gaiak gero eta ugariagoak izaten hasi ziren une horretatik aurrera. Nik beti UEU zerbait bultzagarri, lagungarri edo osagarri bezala ikusi izan dut: ez ohizko unibertsitateak ordezkatzeko, osatzeko baizik. Horregatik, ene iritzi, UEUren eta gure inguruko unibertsitateen arteko nolabaiteko loturak edo erlazioak areagotu egin behar dira, azken batean UEUren "bezero" gehienak, nola edo hala, beste unibertsitate horietakoren batekin uztartuta gaude eta. Bukatzeko, orain arte ere argi eta garbi eduki eta esan izan dudan iritzi bat berriro plazaratu nahi dut: UEUK desagertze aldera jo beharko luke, baldin eta beste unibertsitateetan gaiak normaltasun osoz euskaraz eskainiko balira; baina hori gertatzen ez den bitartean...

Mikel Aizpuru:

“UEUk euskaldun askoren topagunea izaten segituko du”

Pili Kaltzada



Egunkaria

Hegoaldera etorritz geroztik, bosgarren zuzendaria da, Martin Orbe, Baleren Bakaikoa, Inaki Irazabalbeitia eta Kepa Altonagaren ondoren. Mikel Aizpururi egokitu zaio, beraz, 25. urteurreneko jauzian buruan izatea, Udako Euskal Unibertsitatea etorkizunerako prestatzen laguntzea. Erlojuaren kontrako lasterketa baten parekoa izan da Mikelekin hitz hauek egin ahal izatea; maiatzaren 24an egingo den ospakizun nagusiak eta Udako Ikastaroen prestakuntzak zeharo

Zetiaz-Elhuyar: Noiztik ari da Mikel Aizpuru Udako Euskal Unibertsitatean lanean?

Mikel Aizpuru: Lehendik ezagutzen nuen, noski, baina 1986. urteko udaberriaz geroztik, gutxi gora-behera, zuzenean hartu dut parte UEUko egituran. Orduan Espainiako Gerra Zibilaren berrogeita hamargarren urteurrena zela eta, Gasteizko Historia Fakultateko ikasle-talde bat elkartu ginen horri buruzko ikastaro bat antolatzeko eta neronek hartu nuen horren ardura. Hantxe ikusi nuen nire burua, 23 urte nituela, UEUko Historia-sailburu.

Z.-E.: Sortu zenez geroztik, Udako Euskal Unibertsitateak euskara eta unibertsitatea uztartzea izan du, eta du, helburu nagusi. 25 urte igaro eta gero, gero eta jende gehiagok hartzen du parte udako ikastaroetan; helburu hori lortze-bidean zein urratsetan dago UEU?

M. A.: Ez dut uste harreman zuzena dagoenik gaur egun UEUk duen ikasle-kopuruaren eta gizartean duen lekuaren artean. Ene aburuz, leku hori euskara eta unibertsitatearen egoeraren arabera finkatuko da. Udako ikastaroek oraindik sendotze-lana eskatzen duten arren, saiatu beharko genuke urtean zehar ere burutuko

diren ekintzak prestatzen, jendeak ezagut ditzan.

Z.-E.: Erabat euskaraz funtzionatu duen unibertsiterako bidea lantzea da UEUren helburu nagusietarikoa; Euskal Herrian, alabaina, badira euskarari nola edo halako lekua ematen dioten unibertsitateak. Zein harreman duzue gainerako unibertsitateekin?

M. A.: Egoera normalizatzen ari da, bakoitzak bere oinarriak mantenduz, noski. EHU eta NUParekin gero eta harreman hobekak ditugu eta Nafarroako Unibertsitatearekin ere kontaktuak ditugu. Deustutik irakasle eta ikasle dezente hurbildu izan zaizkigu, baina erakunde modura hartuta ez dugu harreman askorik. Agerian dago UEUk antolatzen dituen ikastaroak unibertsitateen onespene osoa dutela; ikasleen hautaketa libreko kreditu moduan onartu izana, adibidez, esandakoaren adibide garbia dela iruditzen zait.

Z.-E.: Iaz onartu zituen EHUK lehen aldiz UEUko zenbait ikastaro hautaketa libreko kreditu gisa. Ikastaroak Iruñean egiten ari zirela jaso zen horren berri eta, beraz, ez dirudi horrek zuzenean eragin zionik iazko ikasle-kopuru handiari. Aurten kredituen arri-mura ikasle gehiago hurbilduko ote da?



Efemeride gisa aipatu ohi diren urtemugara iritsi zaigu UEU ere: hogeita bost urte. Gutxi al dira ala asko? Hainbat, Bizkaia aldean esaten dugunez. Hogeita bosgarren urtearen muñotik begirata, zerbait esan behar dugu hastapenetan ezagutu genuen UEUz.

Zilarrezko UEUri goraintziak

Martin Orbe*

Euskararen normalizazioan eta euskal kulturaren gune erreferentzialen artean lortu duen izena eta izana izango lirarteke, dudarik gabe, UEUz aritzean lehenik aipatu beharrekoak. Baina edozein ekimenez, eta berezia bada areago, beste gogoeta batzuetarako bidea ere ematen du. Hona, bada, nire aldetik, horietako bat edo beste.

Iparraldeko sorlekua

Egoera politikoak hartaratuta gehienbat, Bidasoaz beste aldean egin zituen UEUk bere lehen urratsak. Euskal literatura sortu zen ingurune berdinean, beraz. Iparraldeak eman dio euskarari, beste behin, Etcheparek aldarrikatutako *“behar duen thornuya”*. Leizarragak gogoan zuen *“heuscal herria”* eta Axularrek, bat ahaztu gabe, Nafarroa garaitik Alaba-herriraino aipatzen zituen herrietako Laphurdin abiatu zen. Liluragarria hastapen hau Monarkien zuzen ala zeharkako heredentzietan ala Estatuaren arteko konkista, trukaketa edo anxioetan ala nazioarteko deklarazio zein hitzarmenetan baino askoz ere berezkoagoa den eta aldiin gau ilunean galtzeraino luzatzen den zerbaitetan dituela Euskal Herriak herria –herri bat, beraz– izatearen sustrai zahar eta sakonak sinesten dugunontzat, hots, euskarak egiten gaituela Euskal Herri. Nahiz eta, orain ere, Axularrekin zera esan behar *“erresumak baitituzte diferent”*. Hor dugu, bada, UEUren lehen abialdiko emarietako bat: Lapurdin eman lehen pausuak, Nafarroan finkatu eta iraun hogeita bosgarren urtera arte eta tartean bikoiztu Iruñean eta Baionan, bietan, ekiteko. Harrotasunez aipatzeko abialdia, batetik, eta *“erresumak diferent”* baitira oraindik, eginkizun ditugun hurreratze eta bateratze askoren argigarri, bestetik. Ea noiz ez den notizia Iparraldean ala Nafarroan Euskal Herriari dagokion edozer sortu edo kokatu dela azpimarratu beharra.

Militantziaren gunea


Ez da hau lekuri proposena militantziaren goraipamenak egiten hasteko. Bestalde, militantzia garai zailetan tokia izan zuen, baina gaur egun erabat gauditutako edota gauditutako beharrekotzat jotzen den zerbait bihurtu delakoan nago. Egia da herrigintzako edozein arlo, eta beraz hizkuntza eta kultura alorrek ere bai, ofizialtasun osoaren aitortpena iritsi eta publikotasunaren estatusetik kudeatua izateko giza eta gizarte-iharduerak direla. Hortik joan bide doaz euskalgintzaren ahaleginak ere, eginkizun horretan giza bitarteko eta baliabide ekonomiko gizentsuenak erabiliz. Baina kontua da Euskalgintzak gabezia eta hutsarte geografiko eta sozial asko dituela, bide ofizialeatik erantzunik ez dutenak eta, ene ustez, ezin izan dezaketenak gaur egungo ofizialtasunean, lor daitekeen estatus hoberenak ere, ezinbestean, desabantail nabarmenean izan behar duelako inguruko erderen egoera onartu eta indartsuaren parean. Ofizialtasunetik eta normalkuntzatik, oraindik, ezin duguna herri-ekimenez aldarrikatzen eta bideratzen jarraitu beharra dugu. Bi aipatuko nituzke, baino zabalagoa dugun esparru honetan, UEUren ekarpenen artean. Batetik, jende askok norberak aukeraturako

jakintza-eremuan, euskaraz eta euskal senaz, bere burua janzteko dituen gogo eta asmoak bideratzeko gune bat sortu izana. Horrela ulertu behar da UEUren militante-lana. Izan ere, ez da militantziarik emankorrena bakardadean burutu daitekeen misiolaritza-kutsuko militantzia. Militantzia-gune garrantzitsu eta erakargarriak behar ditugu. Bestalde, militantzia gazte jendearen egin nahi suharrari lotutako zerbait bezala ikusi ohi da. Hori da estereotipoa. Baina, zorionez, UEUk gama zabalagoko militantzia-lana jaso izan du. Jende heldu eta izen ospetsu eta saiatuen presentziak eta irakaspenak hasiera-hasieratik izan dute tokia UEUren programetan. Eta bat eta bi baino gehiago izan dira. Goitik beherainoko militanteak ezagutzeko aukera izan nuen. Militantzia eginbide sistematzat duen esparrutik hurbildu nintzenonek aitortu behar dut ekimen honetan aurkitu eta bizi izan nuen militantziaren indarra izan zela gehien ukitu ninduen. Gure etorkizuna eraikitze ahaleginetan, maiztxo, adoregabetzeraino gibelarazten gaituzten beldur eta zalantzei adorez aurpegi emateko kemena kutxarazteko giza dohaia duten militanteak. Hauexek izan dira, eta dira, UEUren benetako zutabeak.

Kalitatearen erronka

Euskalgintzan aurrera egin nahi eta beharrean, asmo, proiektu edo eskakizunen bat planteatzen denean, kalitatearen zalantza nagusitzen da oraindik gure artean. Mendeetan pairatu izan duen ordezkapen-egoera dela eta, eskasia lantzeko dituen euskarak zernahitarako tresna egoki eta malgua izateko. Euskalzaletasunak ez gaitu hori ez ikusteko bezain itsu egin behar. Baina ataka honetan bi norabide har daitezke. Zalantza erizpidetzat hartuz, egoera minorizatuetatik aurrera ez egiteko neurrietan euskara lantzea izan daiteke bata. Ez da oso azkarra izan behar jokamolde honek nora garamatzen ikusteko. Inoiz ezin gauditutako izango dugu kalitatearen erronka, hizkuntza kultoetatiko diferentzia urren beharrean areagotu egingo baita eta Europako hizkuntza zaharrenaren bitxikeriak eraberrituko dituen museoan erakutsi ahal izango ditugu kasurik hoberenean. Euskarak, biziko bada, ezin dio ukorik egin osotasunezko izaerari. Edo euskararen aldeko benetako apostua egiten dugu eta horrela erantzungo diogu kalitatearen erronkari. Eta honetan ere Iparraldeko gure klasikoak ditugu bide-erakusle. Ez dago Axularren harako hura gogoratzea besterik: *“Baldin eguin baliz euscaraz eta hitz cuntzaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ez pada, euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac”*. Kalitatearen erronkari aurpegi ematea erabaki zuen UEUk eta inork ezin ukatu izango dizkio eman dituen aurrerapausuak. Lekutan gelditu dira bosgarren UEU, Iruñean egiten zen lehenengoan, hamabost egunez, modu ezin artesanalogoz lan eginez *Algebra* liburuaren moldapena txanpan eta guzti –gogoratzen Albaro eta konpainia?– ospatu genuen egunak.. Horixe da bidea eta hortik abiatu zen eta hortik darrai UEU. Ez, bada, etsi.

* UEUko zuzendari ohia



“50. urteurrena ospatzekotan, erabat euskaraz funtzionatuko lukeen unibertsitatearen baitan egitea gustatuko litzaidake, horren sorrera azkartzea baita UEUren helburua”

M. A.: Hala iruditzen zaigu, EHUK ez ezik, NUPak ere homologatuko dituelako udako ikastaroak. Nolanahi ere, ikasle horietarik asko tituluaren bila etorriko dira soilik-soilik eta ez, beste askok bezala, beren “jakinmina” asetzeko. Ikus-teke dago; ez dakigu horrek zertan eragingo dion ikastaroen funtzionamenduari.

Z.-E.: 25 urte igaro eta gero, helburuei tinko eusten saiatzen ari da Udako Euskal Unibertsitatea. Ez al da ezer aldatu denbora horretan guztian?

M. A.: Sortu zenetik gaur egunera asko aldatu da egoera Udako Euskal Unibertsitatearen barruan ere. Nolanahi ere, sorrera bultzatu zuten oinarritzko arrazoiek hortxe diraute: euskararen erabilera ez dago erabat normalizatuta uniber-

tsitatean, bistakoa den bezala. Baldintza horiek, hala ere, aldatuz joan dira urteen joan-etorrian eta bilakaera horrek UEUren lanean norabide berriak bilatzera behartzen gaitu.

Z.-E.: Eta inoiz egoera hori ikustetik izango bagenu, hots, euskara erabat normalizatuko balitz unibertsitatean, desagertzeraz joko al luke UEUK?

M. A.: Ez, UEUren funtzioa ez delako bakarrik euskararen normalizazioa unibertsitatean; erakunde horretatik kanpo zientzia alorrean ari diren euskaldun askoren topagune ere bada UEU. Zein da bere lekua? UEUK ezin ditu errepikatu bere ikastaroetan urtean zehar eskola normaletan ikusi diren gaiak, are gutxiago, gai horiek zenbait kasutan euskaraz

ere ematen direla jakinda. Gai berriak jorratu edota urtean zehar egin daitezkeen gradu-ondoko ikastaroak antolatzeraz jo beharko genuke.

Z.-E.: Bilakaera horretan, aurrerako urratsak egiteko unean dagoelarik, UEUren ibilbidea ezagutu duten askok pentsatuko ote luke erabat aldatu dela hasierako giro hori?

M. A.: Kontuan izan datu hau: 1973an ikastaro bakarra egin zen, filosofia, historia, fisika edota linguistika zeharo nahasturik. Aurten Iruñea eta Baiona artean 30en bat ikastaro izango ditugu, gehienak zientziaren arlo jakin baten inguruan. Horrek zera ekarri du, ikastaroak antolatzeko orduan burokrazia asko hazi dela eta, beraz, gero eta jende eta diru gehiago behar dugula hori guztia prestatzeko. Bestetik, hasierako urteetako lankidetzaz, disziplinarreko nahasketa eta anaitasun-giroa, hein batean, galdu egin da, nahiz eta bestelako udako ikastaroekin konparatuz gero askoz ere handiagoa izan.

Z.-E.: Nola gustatuko litzazuke 50. urteurrena ospatzea?

M. A.: Azken Batzar Nagusian bazkide batek aipatu zuen seinale txarra izango litzatekeela 50. urteurrena ospatu behar izatea, horrek UEUren helburuak oraindik bete gabe zeudela adieraziko lukeelakoan. Ospakizunik ederrena erabat euskaraz funtzionatuko lukeen unibertsitatearen baitan burutuko litzateke, horren sorrera azkartzen laguntzea baita UEUren helburu nagusia. ♦